



Donostia/ San Sebastián a 7 de Febrero de 2013

## **DECLARACIÓN INSTITUCIONAL SOBRE LA CONTAMINACIÓN ELECTROMAGNÉTICA**

### **JUSTIFICACIÓN**

La afección en el Medio Ambiente y a la salud que producen las ondas electromagnéticas ha sido fuente de debate y preocupación estos últimos años.

Esta preocupación se ha incrementado por emisores de ondas, como las infraestructuras de telecomunicaciones sin cable (ondas de alta frecuencia) y por otras instalaciones (ondas de baja frecuencia).

La OMS (Organización Mundial de la Salud) y la IARC (International Agency for Research on Cancer), institución dependiente de la misma, han clasificado los campos electromagnéticos de muy baja frecuencia y las irradiaciones electromagnéticas de alta frecuencia en el apartado de "posibles perjudiciales para el ser humano".

Esta situación ha motivado que instituciones que velan por el medio ambiente y la salud hayan emitido consejos y realizado solicitudes sobre el tema. Así pues, constatan que los límites de exposición a los campos electromagnéticos establecidos para el público son obsoletos, ya que no han sido adaptados desde 1999 y declaran que no tienen en cuenta a los colectivos más sensibles, como son, mujeres embarazadas, recién nacidos/as y niños/as.

En este sentido la Asamblea Parlamentaria del Consejo de Europa, en su resolución 1.815 de fecha 27 de mayo de 2.011 declara:

*"Se debe aplicar el principio de precaución cuando la evaluación científica permite determinar el riesgo con suficiente certeza. Especialmente, en el contexto de una creciente exposición de la población, incluidos en especial grupos vulnerables como la juventud y los niños y las niñas, aspecto que podría generar costes humanos y económicos extremadamente elevados por no actuar si se hace caso omiso de las alertas tempranas."*

Y entre otros, emite los siguientes consejos:

*"Adoptar todas las medidas razonables para reducir la exposición a los campos electromagnéticos, y en especial a la exposición de los/las niños/as y jóvenes que al parecer corren el mayor riesgo de tumores de la cabeza."*

*"Revisar la base científica de las normas de exposición a Campos Electromagnéticos realizada por la institución ICNIRP (International Commission on Non-Ionizing Radiation Protection), ya que tienen graves carencias, y que se aplique el principio ALARA (as low as reasonably achievable) en relación tanto con los efectos térmicos y atémicos o biológicos de las emisiones o radiación electromagnética."*



Donostia-Urda  
Ayuntamiento de San Sebastián

*"Establecer umbrales de prevención para los niveles de exposición a largo plazo a las microondas en todas las zonas interiores, de conformidad con el Principio de Precaución, que no superen 0,6 voltios por metro."*

El Parlamento Vasco en el pleno celebrado el 5 de octubre de 2011, insta al Gobierno Vasco a adherirse a la citada Resolución 1815 de la Asamblea Parlamentaria del Consejo de Europa.

Asimismo, las Juntas Generales de Gipuzkoa, en resolución 72/2012 de fecha 22 de junio de 2012, declaran lo siguiente: *"Las Juntas Generales de Gipuzkoa muestran su adhesión a la Resolución 1815 del Consejo de Europa. Además, hacemos un llamamiento a la Diputación Foral y a los Ayuntamientos de Gipuzkoa para que muestren su adhesión a la citada resolución."*

Por lo expuesto y teniendo en cuenta las competencias que atribuye la legislación a las instituciones locales, presentamos al Pleno Municipal la siguiente declaración institucional para su aprobación.

### **DECLARACIÓN INSTITUCIONAL**

1.- El Pleno de Donostia/ San Sebastian se adhiere a la Resolución 1815, de 27 de mayo de 2011, de la Asamblea Parlamentaria del Consejo de Europa.

2.- El Pleno de Donostia/ San Sebastian se muestra favorable a aplicar en el municipio las recomendaciones recogidas en la citada resolución, respondiendo a la solicitud realizada por las Juntas Generales de Gipuzkoa, en Resolución 72/2012 de fecha 22 de junio de 2012.

3.- El Pleno de Donostia/ San Sebastian insta al Gobierno del Estado Español a que recoja y aplique las recomendaciones de la Resolución 1815, en el desarrollo de la legislación de Telecomunicaciones.

JOSU RUIZ MARTÍN  
Portavoz Bildu

VICENTE GARCÍA MOMBLONA  
Concejal PP

ENEKO GOIA LASO  
Portavoz PNV

Donostian 2013ko otsailaren 7an

## **KUTSADURA ELEKTROMAGNETIKOARI BURUZKO ERAKUNDE ADIERAZPENA**

### **Justifikazioa**

Azkeneko urteetan uhin elektromagnetikoak ingurumenean eta gizakiaren osasunean duten eragina kezka-iturri bihurtu da.

Kezka hori bereziki indartu duten uhinren sortzaileak kablerik gabeko telekomunikazio-azpiegiturak (maiztasun handiko uhinak) eta beste zenbait azpiegiturak (maiztasun baxuko uhinak) izan dira.

OMEk (Osasunaren Munduko Erakundea) eta bere pean dagoen IARC erakundeak (International Agency for Research on Cancer) oso maiztasun baxuko eremu elektromagnetikoak eta maiztasun altuko irradiazio elektromagnetikoak "gizakientzako kaltegarri posibleen" atalean sailkatu dituzte.

Egoera honek bultzatu du ingurumena eta osasun publikoa zaindu behar duten hainbat erakundek gaia jorratzea, zenbait gomendio eta eskaera eginez. Horrela, adierazten dute jendearentzat ezarritako eremu elektromagnetikoen eraginaren mugak zaharkituak daudela, 1.999 urtetik ez baitira egokitu, eta ez dutela kontuan hartzen kalteberenak diren taldeak, esaterako, haurdun daudenak, jaio berriak eta haurrak.

Hala, Europako Kontseiluko Legebiltzarkideen Batzarrak, 2.011ko maiatzaren 27an onartutako bere 1815 ebazpenean horrela dio:

*"Zuhurtzia printzipioa erabili behar da balorazio zientifikoak ezin duenean zehazki ezarri zen den benetako arriskua. Populazioaren esposizioa gero eta handiagoa dela ikusita, eta bereziki kalteberak diren gazteak eta umeak, eragindako giza-kostuak eta kostu ekonomikoak ikaragarriak izan daitezke garaiz egindako oharpenei kasu egiten ez bazaie."*

Eta ondoko gomendio hauek egiten ditu, besteak beste:

*"Eremu elektromagnetikoekiko esposizioa gutxitzeko zentzuzko neurriak hartza, eta partikularki umeen eta gazteen esposizioa gutxitzea, hauen kasuan buruko tumoreak garatzeko arriskua handiagoa dela dirudi eta."*

*"ICNIRP erakundeak (International Commission on Non-Ionizing Radiation Protection) egindako Eremu Elektromagnetikoekiko esposiziorako arauen oinarri zientifikoak berraztertzea, gabezi larriak baitituzte, eta ALARA printzipioa erabiltzea (as low as reasonably achievable), irradiazioaren eragin termikoa eta atermikoa edo biologikoak ere kontuan hartuta."*

"Barruan mikrouhinien esposiziorako epe luzeko mugak ezartzea, Zuhurtzia Printzipioa jarraituz, 0,6 Voltio/metro gainditu gabekoak."

Eusko Legebiltzarrak, bere 2011ko urriaren 5eko saioan, Eusko Jaurlaritzari eskatu zion lehen aipaturiko Europako Kontseiluko 1815. Ebazpenari atxikimendua adieraztea.

Era berean Gipuzkoako Batzar NagusieK, bere 2012ko ekainaren 22ko 72/2012 ebazpenean, honako hau adierazi zuen: "Gipuzkoako Batzar Nagusiek bat egiten dutela Europako Kontseiluaren Legebiltzar Batzarraren 1815. Ebazpenarekin. Halaber, dei egiten diete Foru Aldundiari eta Gipuzkoako udalei ere, bat egin dezatela aipaturiko ebazpenarekin."

Hori guztia dela eta, eta indarrean dagoen legeriak toki-erakundeei esleitzen dizkien eskumenak kontuan harturik, Udal Batzarrari honako adierazpen instituzional hau aurkezten diogu, bera egin dezan:


#### **ERAKUNDE ADIERAZPENA**

- 1.- Donostiako Udal Batzarrak adierazten du bat egiten duela Europako Kontseiluko Legebiltzarkideen Batzarrak, 2011 maiatzaren 27an onartutako bere 1815 ebazpenarekin.
- 2.- Donositako Udal Batzarra, aipaturiko ebazpenean jasotzen diren gomendioak udalerrian ezartzearen alde agertzen da, Gipuzkoako Batzar Nagusiek bere 2012ko ekainaren 22ko 72/2012 ebazpenean eskatutakoari kasu eginez.
- 3.- Donostiako Udal Batzarrak eskatzen dio Espainiar Estatuko Gobernuari Telekomunikazioetarako Legediaren garapenean, araudian jaso eta aplika ditzala 1815. Ebazpeneko gomendioak.

JOSU RUIZ MARTIN  
PORTAVOZ BILDU



VICENTE GARCIA MOMBONA  
CONCEJAL PP



ENEKO GOIA LASO  
PORTAVOZ PNV

